

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Baliabide fisikoei dagokionez, zaborrontzien baitan kooperatibaren txartela bereizten duen sentsore batzuk beharko ditugu, Agrobiziren bazkideak horrela puntuak jasotzeko, merkatu edo supermerkatuetan saltzerako orduan deskontuak jasotzeko. Sentsoreak dituzten kontainer berezi hauek egiteko, ingeniartzan espezializatuta dagoen enpresa bat azpikontratatu dugu.

Horretaz aparte, behar izango dugu materia organikoa fertilizante ekologikoetan bihurtzen duen makina. Makina hauek zenbait enpresa egiten dituzte maila internazionalen, baina litekeena da HORSE AD25 makina erostea, ImpactBioenergy enpresa estatubatuarrek egindakoa.

Era berean, enpresarako espazio bat beharko dugu zona industrial batean, horrela makineria kokatzeko eta bezeroei laguntza pertsonala eskaintzeko.

Giza baliabidekin jarraituz, beharrezkoa izango da indar fisikoa duten pertsonak fertilizanteen kutxak eta zaku pisutsuak kargatzeko eta lekuz mugitzeko. Garrantzitsua izango da ere enpresaren zuzendaritza eta nekazari espezializatuen laguntza, makina guztien funtzionamendua gainberatzeko eta barazki eta fruten produkzioarako.

Finantza balibaideekin amaitzeko, lehenengo inbertsio handi bat egin beharko dugu, makineria erosteko. Inbertsio hau kooperatibistek eta proiektuan interesatzen diren enpresak egingo dute. Hala ere, proiektu ekologikoa denez, udaletxeak diru-laguntzak eskaintzea edo Eusko Jaurlaritzak inbertizea posible izango litzateke.